

ZAINZAILAEN DESTINOAK ESLEITZEKO JARRAIBIDEAK, IKASTETXEETAN

2020-2021 IKASTURTERAKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIOAN

LEHENTASUNA DUTENEI DAGOZKIENAK

Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak abenduaren 31ko 814/2010 Foru Agindua eman zuen, aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onesteko. Haren 12. artikuluan ezartzen da, baldintza batzuk beteta, lan-kontratadunek dutela lehentasuna ikastetxe berean zerbitzu egiten segitzeko.

2020-2021 ikasturterako ikastetxeetan behar diren zaintzaileen plantillari buruzko proposamena aztertu ondoren, ikusten bada 2019-2020 ikasturtean dagoeneko zaintzaileak kontratatuak zituzten ikastetxeetan beharrak bere horretan jarraitzen duela, kontratu horien titularrek arestian aipaturiko artikuluan ezarritako lehentasuna gauzatu dezakete.

Kontratua indarrean izanik, gehienez ere 2020ko abuztuaren 31n bukatzen den kontratua eta destinoa ikastetxe batean dutenek, ikastetxe bereko kontratazio baterako lehentasuna balia dezakete, kontratu berriak 2020ko irailaren 1ean hartuko duelarik indarra.

Prozeduraren web-fitxan, informazio hau argitaratuko da:

- I. ERANSKINA, lehentasunez kontratatuak izateko eskubidea duten pertsonen zerrenda, adierazten duena 2019-2020 ikasturtean zein izan duten destinoko ikastetxea
- II. ERANSKINA, lehentasunez kontratatuak izateko eskubidea duten pertsonen zerrenda, kontratazio zerrendetako puntuazioaren arabera ordenatua.
- III. ERANSKINA, lehentasuna balia daitekeen ikastetxeetan eskaintzen diren lanpostuen zerrenda.
- IV. ERANSKINA, lehentasunari lotuta ez dauden lanpostuen zerrenda (beste ikastetxe batzuetan eskaintzen diren lanpostuak).

PARTE-HARTZE SISTEMA, HAUTAKETA ETA LANPOSTUEN ESLEIPENA

Kontrataziorako lehentasuna gauzatu da berariazko eskabide bat erabilita, eta nahitaezkoa izanen da eskabide hori Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez aurkeztea. Eskaera hori izapidetan erantsiko da behar bezala beteta eta sinatuta.

Parte hartzeko eskabidean baieztatzen da kontrataziorako 15 eguneko lehentasuna baliatu nahi dela. Gainera, eskatzaileak lanpostuak ordena batean jarriko ditu, baldin eta ikastetxe batean lanpostu bat baino gehiago eskaintzen bada.

Esleipenaren ebazpena izanen da eskatzaileak kontratazio zerrendetan duen posizioaren arabera eta hautaketan zehazten duen lanpostuen ordenaren arabera.

Ikastetxe batean lanpostu baino izangai gehiago balego, lehentasuna baliatzeko eskabidea aurkezten duten pertsonak, kontratazio zerrendan duten posizioagatik lanposturik esleitzen ez bazaie, kontrataziorako izangaien zerrendan “libre” gisa azalduko dira eta ondoko eskaintzak hautatzen ahalko dituzte.

Ulertuko da parte-hartzeko eskabiderik **aurkezten ez** duten pertsonak **uko egiten diotela lehentasuna baliatzeari**, eta, beraz, kontratazio zerrendetan “libre” agertuko dira, ondoren, kontratazio orokorreko prozeduran eskaintzen diren lanpostuak hautatu ahal izateko.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 10ean.

ALDI BATERAKO LANGILEAK KUDEATZEKO
ZERBITZUKO ZUZENDARIA

Isidra Roldán Arróniz